

AUTOEBALUAZIOA**VI. MODULUA: PEPTIDO ETA PROTEINA TERAPEUTIKOEN ADMINISTRAZIOA
ETA DISPOSIZIOA**

1. Aho-bidetik peptidoak eta proteinak administratzeko arazo nagusia:
 - a) Molekula handiak dira eta heste-epitelioa zeharkatzeko arazoak dituzte
 - b) Fomulazio solidoak (kapsulak edo konprimituak) ezin dira prestatu
 - c) Xurgatzen ez diren konplexuak osatzen dituzte behazun-gatzekin
 - d) P-glikoproteinaren eraginez heste-zeluletatik kanporatzen dira

2. Proteina terapeutikoen iturri nagusia:
 - a) Sintesi kimikoa
 - b) DNA errekonbinantearen teknologia
 - c) Animalia-odoletik lortutako seruma
 - d) Giza-hemoderibatuenak

3. Peptido eta proteinen prestakin parenteralen arazoak:
 - a) Bolumen handiak administratu beharra
 - b) Ezegonkortasun fisikoa eta kimikoa
 - c) Narritadura administrazio-tokian
 - d) Eszipiente kopuru handia erabili beharra

4. Gihar-barnetik edo larruazalpetik administratzean:
 - a) Odolean iraupena bena-barnetik administratzen denean baino handiagoa da
 - b) Esterilizazioa ez da beharrezkoa
 - c) Proteinak bide linfatikotik guztiz xurgatzen dira
 - d) Beti ematen da korrelazio ona erantzun farmakodinamikoarekin

5. Proteina terapeutikoak dauzkaten formulazioen eraginkortasuna handitzeko estrategiak:

- a) Proteasen inhibitzaileak
- b) Formulazio muki-itsasgarriak
- c) Xurgapenaren sustatzaileak
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira